

ARCO

AUTOBUS URBANOAREN ERAKETA AZTERGAI UDALAN

Arrasate

R E S S

1995eko
Urriak 20
293. zenb.

ELKARRIZKETA

Jon Ugalde

KIROLAK

**Juan R. Arana
Memoriala**

KULTURA

Valentin Arana

Birziklapena indartuz

Goraka doa
paper eta
beiraren
bilketa
herrian



¡POR MIS MUERTOS!

TEATRO GEROA • TEATRO DE LA JACARA



AMAIA ANTZOKIA

Urriak 27,
ostirala
Gaueko 22.30tan.

Sarrera

700 pta.

Gazte Txartelarekin

500 pta.

5 ISTORIO

Bernardo Atxaga

Sergi Belbel

Ernesto Caballero

Pepe Ortega

Alfonso Zurro.

5 ZUZENDARI

Jose Ramón Barea

Ernesto Caballero

Andrés Lima

Pepe Ortega

Alfonso Zurro.

Aktoreak

Maica Barroso, Begoña Bilbao, Juan Luis Escudero, Rosa Martínez, R. Eleazar Ortiz, Alfonso Torregrosa.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Intserzio soziala ekonomia-aren bidez

Bartzelonan orain gutxi burututako ihardunaldi batzuetan, beste gai batzuren artean, Europako gizarte aberatsaren erdian dagoen izugarritzko marginatu tropelaz eta epe luzerako langabetuez hitzegi zen.

Hizlariak, irakasle eta akademikoak, handituz doan arazoari aurre egiteko ekintza ereduaren gainean jardun zuten, merkatuak berak ez du irtenbiderik eskaintzen eta.

Konpetentziak ez du mugarik, oharkabea dagoena, berrikuntza ideia freskorik ez duena eta produkzio eragileak bizkortasunez mugitzen ez dituen itoz.

Eskulanak, eragile bat gehiago bezala, merkatuaren eskaerari erantzun behar dio, zuzen eta malgutasunez erantzun gainera. Kontuan hartu merkatuaren eboluzioak eta konpetitibotasun gaitasunak baldintzatzen dituela soldatak, mugikortasuna eta despidoa bera.

Hizlarietarikoko batek Estatu Batuen adibidea jarri zuen, langabetu tasa txikiko herrialdea, zerbitzuen arloa garatzearen ondorioz, askatasun osoa ematen dielako gizarte segurantzari eta soldatei.

Norberak du bere etorkizunaren erantzunkizuna eta norberak dakienarekin eta ahal duenarekin borrokatu behar du bere lan-eremua egiteko, soldaten maila lortzeko, merkatuak berak jartzen dituen mugak baino kontuan ez dituela. 1975. urtetik batz besteko soldatak ez dira igo Estatu Batuetan.

Ekonomia-aren orokortzeak aduanetako

ateak zabaldu ditu. Kalitate gutxiko lanak eta teknologia sinplekun produktuak nonahi agertu dira merkatuan, herrialde garatueta langilegoa arriskuan jarritz. Erremedioa: soldatak egokitu, lan-merkatua liberalizatu eta zerbitzuen merkatua bultzatu, erreserbako lan-indarra bertan sartuz. Errezeta gogorra Europara datorkiguna. Europako Elkarteko ordezkariak, langabezia dauzen 30 milioiak ikusita, antzerako politaren aldeko hitzak bota zituen, esanez terapia amerikar erara eginez gero oso denbora laburrean 20 milioi lanpostu sortuko lirakeela.

Sindikatuak, ideologikoki aurrez aurre, lanaren finkotasunaren alde ona ikusten dute. Lanpostuak sortzeko aukera bakar eta onena da.

Baina errealitateak beste bide bat hartzen du eta segurtasunez ezin jakin bide ona zein den.

Honelako tokietan Arrasateko kooperatibak behartutako erreferentzia izaten dira. Elkar-lan ereduaren lorpenak idealizatu egiten dira, baina arazoa hori baino zabalagoa da. Merkatuak agintzen du, berak arautzen du bizitza ekonomiko eta soziala, eta ordeko besteren bat asmatu arte, gobernuen mugen gaineko ekintzaren beharra dago.

Baina ez ahaztu. Malgutasun eta zinturoia estutzeko sasoi iristen ari da, eta erantzunkizun handiagoz eta bakarka gehiago arriskatzekoa.

JESUS LARRAÑAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jaurregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Danel Zubikarai, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



Azala: Goio Arana

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Peritutzua Judizialak

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaureritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

• • • •

Besaide M.E. Chapeau!

Orri zuri bat hartu eta bertan, norberak momentuan sentitzen duena idaztea gauza zaila pentsatu izan zait betidanik, baina oraingoan nere burua derrigortuta ikusi dut hori egitera. Beraz, burutik eskuetara aurkitu ditzakedan oztopoak alde batera utziz, hemen doakizue nere istorioa.

Ohikoa den bezala, hiruzpalau jai egun taldean gozatzeko asmoz, Besaide M.E.ak Pilarica zubian Pirinotara irteera bat antolatu zuen. Berrogei lagun inguru elkartu ginen ostegunean, Garibaiko geltokian, helburu bakar bategaz, egun hauetan mendiak eskaintzen dizkigun zoragarritasunekin disfrutatu. Bost orduko bidaia baten ondoren, etxean gertatutako bokatak jan, motxila lepoan hartu eta gora!!, "Spingo"ko aterperaino; bertan afaldu eta mus txapelketa batzuen ostean ohera, hurrengo egunean 7etan jaikitzeke.

Bakoitza bere erritmoan baina taldea momentu batean ere banandu barik, iritsi ginen "Pic del Royo" izeneko mendira. Leku hauetan sortzen den giroa, bertan egondako batek ezagutu dezake soilik: hango poza, umore ona eta elkarkidetasuna Maritxu Kajoi gauean ere ez da ikusten.

Mendian apur bat ibili denak badaki arrisku gehiagogo dagoela beherantz gorantz baino. Oraingo honetan,

nahiz eta kontu handiz ibili, han joan ginen bi lagun elurretan aldatzbehera baten ezin geldituz. Txatxilipurdi ugari eman ondoren lortu genuen gelditzea eta bakoitzak bere gorputzari astindu batzuk eman ondoren konaturatu ginen, batek ez zuela kolpe bakar bat ere hartu, hori zortea!! (hau ikusita gero The Iron Maiden ezizena jarri diot); besteak berriz (nik neuk) gorputz osoa beltzunez beteta nuen. Hemen hasten da benetan txalotzekoa den Besaide M.E.ko arduradunen eta, orokorrean, talde osoaren laguntza eta partaidetasuna.

Helikopteroari deitzeko behar izan zuten denbora, egitan "Record-Man" baten denbora izan zen (Frantziako Gendarmeen iritziz). Ospitalean nengoela taldeak erakutsi zuen ardura gurasoen parekoa izan zen; eta igandean jaso nuen bisita, ia berrogei lagun ospitaleko logelan, Sabako Erreginak ere ez du inoiz izan. Momentu hartan, nerbioak zirela eta, ez nintzen gai izan eskerrak emateko, beraz orain ematen dizkizuet: Eskerrik asko danoi!!

**BESAIDE M.E.KO
BAZKIDE BAT.
THE IRON MAIDEN-EN
LAGUNA**

Zuzenketa

Joan zen asteko zenbakian txutxumutxuetako orrialdetan idatzi genuen Arantzazu Loidi eta Mikel Izurrategi Dorletan ezkondu eta ondoren Gure-Ametsan izan zutela bazkaria. Testua ez zen guztiz zuzena izan eta egindako akatsak zuzendu behar ditugu. Ezkontza Bolibarreren izan zen eta bazkaria Zelai Zabalen. Barkatu izandako hanka sartzea.

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatze ailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzitzen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Bitxori

ileapaindegia

Errebuealta, 10 behea ARRASATE Tfnoa: 79 27 61

Erabiltzen dituzu edukiontziak?



**Jose Ramos
Langilea
(54 urte)**

Bai, jarri zutenetik erabiltzen ditut. Hori egiten dut hortik ere dirua ateratzen delako, aurreztu egin behar dugu guztiok gure herriak aurrera egin dezan



**Carmen Lopez
Etxekoandrea
(53 urte)**

Bai etxe aurrean daukat eta erabiltzen ditut. Astean hiru bider jeisten naiz. Erabiltzeko ohitura hori jarri zutenetik dut.



**Gerardo Mujika
Jubilatua
(67 urte)**

Bai, asko. Papera astean behin gutxi gorabehera, baina botelak ia egunero. Gainera edukiontziak erabiltzeko ohitzen bazara ez zaizu kostatzen bertara eramatea.



**Margarita Balentin
Etxekoandrea
(52 urte)**

Papel edukiontziak asko erabiltzen ditut eta baita beirarenak ere. Lehen ez zegoen ohiturarik eta dena zakarrontzira botatzen genuen. Orain berriz, kontzientziatu gara eta edukiontzietan uzten dugu.



**Aitor Biain
Ikaslea
(13 urte)**

Bai, etxean bai. Nik ez dut erabiltzen baina amak jeisten du zaborra edukiontzietara.



**Leire Ayani
Ikaslea
(12 urte)**

Gurasoek jeisten dute, astean pare bat bider gutxienez. Gainera ikastolan ere kaxa handi bat dugu eta betetzen denean birziklatzera eramaten da.




**Mila Sebastian
Langabetua
(23 urte)**

Bai erabiltzen ditut. Astean bi bider gutxienez joaten naiz, jarri zutenetik gainera.



**Fermin Mora
Ikaslea
(20 urte)**

Papera eta beira etxean gordetzen ditut eta pilatzen direnean edukiontzietara bota. Denok egin beharko genukeela uste dut, hobe da birziklatzea zakarrontzira botatzea baino.



EGVZKiGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospiti 79 53 00
 Igoalatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 77 03 45
 • Espezialitateak 77 05 78
 77 12 63
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 56
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 76 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 088

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutgia
 Monterron 77 01 05

20 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Waterworld" 7etan eta 10etan.
- **PIRAGUISMO IKASTAROA-REN HASIERA**
 Urriaren 20, 21 eta 22an pira-
 guismo ikastaroa Bergaran.
 Larunbatean goizez eta
 arratsaldez eta igandean
 goizez.
- **AEDko BERTSO - ESKO-
 LAREN AURKEZPENA**
 Arratsaldeko 7etatik 8.30ak arte
 AEDko lokalean. 11- 15 urte
 arteko neska-mutilei zuzen-
 duta. AEDk antolatuta.
- **DIAPOSITIBA EMANALDIA**
 "Euskal herriko ohitura eta tra-
 dizioak" arratsaldeko 5etan
 Famili eta Gizarte Hezketa-
 rako Zentruan. Emalea:
 Jabier Joanes.
- **GAZTEOK BIZIKLETAN
 LEHIAKETAREN SARI
 BANAKETA**
 "Gazteok bizikletan" VI. argaz-
 ki lehiaketaren sari banaketa
 eta argazki erakusketaren
 hasiera. Monterronen arra-
 tsaldeko 7etan.
- **TXILEKO ORKESTRAREN
 KONTZERTUA**
 Arratsaldeko 8etan Amaia an-
 tzokian.

21 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Waterworld" 5etan, 7.30etan eta
 10etan.
- **TAILA IKASTAROAREN
 HASIERA**
 Larunbatero 10etatik 2ak arte,
 30 ordu. Arrasateko tailagi-
 nen elkarteak antolatuta.
- **JOKIN ZAITEGI ITZULPEN
 LABUREN LEHIAKETA**
 Urriaren 30ean Arrasate 95
 lehiaketetan eta Jokin
 Zaitegi itzulpen laburren
 sariketan lanak aurkezteko
 epea bukatuko da.
- **GERONTOLOGIA
 LAGUNTZAILE
 IKASTAROA**
**Azaroaren 2tik maia
 tzaren 30a arte, 180
 ordu. Ordutegia:
 astearte eta ostegune-
 tan 5.30etatik 8etara.
 Izena emateko epea
 urriaren 23an bukatu-
 ko da. Informazio
 gehiagorako deitu 79
 02 11 edo 77 05 00
 zenbakietara, goizeko
 10etatik 12.30ak arte
 eta 2etatik 6etara.**

22 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Waterworld" 5etan, 7.30etan
 eta 10etan.
- **GIPUZKOAKO BERTSOLA-
 RI TXAPELKETA**
 Txapelketako azken laurdenak
 arratsaldeko 5.30etan Amaia
 antzokian. Bertsolariak:
 Bixente Gorostidi, Jesus Iri-
 bar Olalde, Alfonso Jimenez,
 Jose Luis Urdangarin, Xabier
 Zeberio eta Iñaki Zelaia.
- **MENDI-BIZIKLETAZ IBI-
 LALDIA**
 Arrasatetik Osintxura trenbide
 zaharretik mendi bizikletaz
 ibilaldia. Irteera: goizeko
 10.30etan, bukaera eguer-
 diko ordu batean. Ibilbideak
 33 km izango ditu.. Lurrats
 taldeak antolatuta.
- **AEK EGUNA ZUMAIAN**
 Arrasatetik autobusak irtengo
 dute. Ordua: goizeko 10etan
 Garibaitik, itzulera arratsal-
 deko 8etan.
- **MENDIKO-BIZIKLETA IRTE-
 ERA ESKORIATZAN**
 Eskoriatzako inguruak ezagu-
 tzeko irteera goizeko
 9.30etan plazatik. Prezioa:
 1.000 pta. eta irteera baino
 ordu bete lehenago ordain-
 duko da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 20**
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.
- Larunbata 21**
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.
- Igandea 22**
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 10ak arte: Irizar. Erguin.
- Astelehena 23**
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaine.
- Asteartea 24**
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.
- Asteazkena 25**
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
- Osteguna 26**
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.



ARRASATE-OSINTXU MENDI-BIZIKLETA IBILALDIA

Lurratssek antolatuta mendi-
 bizikleta ibilaldia. Arrasa-
 satetik Osintxura trenbide
 zaharretik joango dira.
 Ibilbidea 33 kilometrokoa
 izango da eta irteera
 goizeko 10.30etan. 10
 urtetik gorako edonor joan
 daiteke

23 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Waterworld" 7etan eta 9.30etan.
- **SAN VIATORREN GURASO BILERA**
OHOKo 7. eta 8. mailako gurasoei zuzendutako bilera arratsaldeko 6etan San Viatorren.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria Askatu lemapean kontzentrazioa plazan arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

GERIATRIA 3. ADINEAN TREBATZEKO IKASTAROA

Geriatría ikastaroa, 400 ordu. Goizez emango dira klaseak. Izena emateko azken eguna urriaren 27a. Talde Mugatuak. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolatuta

EUSKAL HERRIKO HISTORIARI BURUZKO HITZALDIA

Azaroaren 8an hitzaldia. Gaia: "Deba Garaia XVI. mendean" Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Uribarriko jubilatutako etxeak antolatuta.

EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Gazte Bulegoak Lore Gazteak dantza taldearekin elkarlanean Euska Dantzen ikastaroa antolatu du urriaren 20tik abenduaren 15a arte ostiralero arratsaldeko 7etatik 8.30 etara. 15 urtetik gorakoei zuzenduta, maila desberdinak. Izenematea 1.000 pta, Gazte Bulegoan.

24 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Waterworld" 7etan eta 9.30etan.
- **SAN VIATORREN GURASO BILERA**
Goi batxilergoko gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 6etan San Viatorren.

PINTURA ERAKUSKETA

Valentin Aranaren pintura erakusketa urriaren 29a arte Harresi aretoan. Ordutegia: Egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegunean eguerdiko 12etatik 2ak arte eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

BIGARREN TENIS TXAPELKETA MUSAKOLAN

Herriko 2. tenis txapelketan parte hartzeko epea urriaren 25an bukatuko da. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko deitu kiroldegiko bulegoetara, 79 04 27 zenbakira. Bulego ordutegia: goizeko 10etatik eguerdiko 12etara eta arratsaldeko 3etatik 6.30ak arte.

25 ASTEAZKENA

- **SAN VIATORREN GURASO BILERA**
Lehen hezkuntzako 1., 2., 3., eta 4. mailako gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 6etan San Viatorren.
- **PEKINGO EMAKUMEARI BURUZKO JARDUNALDIEN HITZALDIA**
Hizlaria: Justa Montero feminista eta topaketan parte hartutakoa. Monterronen arratsaldeko 7.30etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

2. MUS TXAPELKETA EMAKUMEENTZAT

Urriaren 28an, zapatua Leintz elkartearen arratsaldeko 4etan. Sari ugari egongo da. Mus txapelketan parte hartzeko ikastaroa jarri da abian. Ikastaroa Leintz elkartearen ematen da arratsaldeko 3etatik 4.30etara.

NERABEAK ETA AISIALDIRAKO HEZITZAILEAK TAILERRA

Urriaren 27 ostirala arratsaldez eta 28an larunbata goizez. Herriko gazte taldeetako begiraleei zuzenduta. Tailerlean nerabearen eboluzioa, heldu eta hezitzaileen arteko harremanak, komunikazioa, autoestima eta kasu praktikoak aztertuko dira. Prebentzio eta Gazteria Udal Zerbitzuek antolatuta.

26 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"Un paseo por las nubes" 7etan eta 9.30etan.
- **ZINE KLUBA**
"Criaturas Celestiales" Zuzendaria: Peter Jackson. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.
- **SAN VIATORREN GURASO BILERA**
Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako gurasoentzat, arratsaldeko 6etan.
- **EMAKUMEA TXINAKO KONFERENTZIAN HITZALDIA**
Hizlaria: Amaia Zabaleta (Haitrouko konferentziako partaidea). Arratsaldeko 7etan AEDko lokalean, Pablo uranga, 4 behe. EKIN emakumeak eta AEDk antolatuta.

PEKINGO KONFERENTZIARI BURUZKO HITZALDIAK

Pekingo konferentziari buruzko bi hitzaldi. Emakumeen Asanbladak antolatuta asteazkenean eta Ekinen eskutik ostegunean.

“Ez dugu ez helbururik eta ezta mugarik planteiatu ere. Motibatzeko gaitasuna dugun artean Himalayara joango gara. Akaso Kangchenjunga igo eta utzi egiten dugu, edo bi espedizio gehiago egiten dugu, edo 60 urteak bete arte urtero joango gara. Urtero, proiektu bat bukatu ondoren, hurrengorako gogorik dugun ikusten dugu. Baina ez daukagu Himalayara 39/40 urterekin joateko esperantzarik”.

Felix Inurrategi, urriak 16.



“Inurrategitarren inguruan gauza asko entzuten dira, onak gainera, bai argi eta garbi ikusten diren kirol lorpenei esker eta baita zenbait lagunek esaten didaten beste arrazoi batzuegatik. Anaiak dira, ekintza berdinak maila berdinean egiten. Euskaldunak eta euskaradunak dira. Oso guapoak dira. Eta biak, batez ere Alberto, umilak dira. Niretzat azken hau da atseginena”.

Juanjo San Sebastian, urriak 16.



“Orain arte euskararen gainean egin diren saio gehienak diaktikoak izan dira; guk, ordea, saio informatiboak egin nahi ditugu; besteak beste, herrialde batean edo bestean euskarak duen egoera azaldu, euskararekin zerikusia duten lagunak elkarriketatu, eta euskaraz argitaratzen diren liburu eta abarren berri eman”.

Joxe Aranzabal, urriak 15.



Zer konpondu duzue Leixargarateko aterpetxean?

Egoera txarrean zegoela eta, azken bi urteetan Leixargarateko aterpetzeko komuna itxita egon da eta ondorioz, txabolaren kanpoaldea zikindu egiten zen. Komuna berritzea beharrezkoa zela eta, orain dela gutxi konponketa lanak hasi genituen eta dagoneko bukatu ditugu. Komunak eta putzu beltza Aretxabaletako UDA elkartearekin batera konpondu eta erdibana ordaindu dugu. Guztira 400.000 pta. kosta zaigu obra hori egitea.



Mikel Pereda
Leixargarateko aterpetzeko arduraduna

Aterpetxean hala ere, beste konponketa batzuk ere egin nahi ditugu. Sukaldean ekonomia berria jartzeko eta aterpea margotzeko asmoa dago. Bataz beste 700.000 pta. gastatuko ditugu eta gehienbat Besaideko 1.800 bazkideen laguntzaz eta elkarteak duen diruarekin estaliko dugu aurrekontua. Leixargarateko aterpetxea herriko beste elkarte batzuk erabili izan ohi dutenez, gainera, udaleko gazteria eta kultura sailak 200.000 pezetako dirulaguntza eman dugu.

Urtean zehar 500 lagun inguruk erabiltzen du aterpetxea. Dakizuen moduan, txabolan egoteko ez da derrigorrez bazkidea izan behar. Hori bai, taldean bazkidea den norbait joan behar da. Aterpetxea erabiltzen dutenek eguneko diru kopuru bat ordaintzen dute eta horrekin txabolak eragiten dituen gastuak estaltzen dira: gasa, egurra... Zerbitzu horren ardura bi lagunek eramaten dugu eta aterpeko giltza, hartu nahi duenak Besaideko bulegotik pasa behar du asteartetan.



Kalitate gorena leihoretan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

LARUNBATAK LARUNBATAK

INGELESA eta ALEMANA
APUNTA ZAITEZ ORAINDIK EGIN EZ BADUZU

LARUNBATAK
9.30etatik 12.30etara



Araba Etorb., 4
ARRASATE

Tfnoak: 79 01 32
79 65 54

Erasoa Batzokiaren aurka

Aurpegia estalita zeramaten lau gaztek tresna suemaile bat bota zuten Batzokira joan den asteazken gauean. Ez dago garbi tresna barrura jaurtiki zuten ala kanpoan utzi zuten, baina Batzokian zegoen lagun batek erredura txikiak izan zituen esku batean.

Manifestazioa

Salto del Negro, Jaen eta Sevillako espetxeetan gose greban dauden euskal presoek aldeko manifestazioa egin zen asteazken arratsaldean, hilaren 11n. Manifestazioan 250 lagunek parte hartu zuten.

MCCko lehendakari berriaren aurkezpena

Antonio Cancelok, MCCko lehendakari berriak Korporazioaren asmoen berri eman zuen joan den asteazkenean, hilaren 11n. Olandixo baserrian emandako prentsaurrekoan, bere lana aurretik finkatutako erizpideen jarraipena



500 mendizale Udalaiztera

Joan den ostegunean Udalaizt egunaren 24. ekitaldia ospatu zen. Eguraldi ona lagun 500 lagun inguru elkartu ziren Udalaiztzen. Ohi moduan meza ospatu zen mendi tontorrean eta oraingoan, aurten hildako Roberto De la Fuente "Risbi" oñatiarra eta Jose Mari Mendizabal abadea omendu zituzten bereziki.

izango dela adierazi zuen Cancelok. Horrez gain, talde lanaren garrantzia azpimarratu eta langileen eskulana aprobetxatzeaz gain, langileen pentsatzeko gaitasuna kontuan hartzea komenigarria dela esan zuen. Kanpoko inbertsioen gainean, MCCko buruak; "Inork ez du aberastasunik lortu kanpoko merkatua ikutu barik" esan zuen.

Untzilan bonba aurkitu

Ostiralean gerrate zibileko bonba bat aurkitu zuten Untzilan. Auzo horretan baserri bat eraikitzen ari dira eta lur azpian topatu zuten 3 kilo pisatzen zituen bonba. Arriskutsua izan zitekeela eta, Ertzantzak bonba estandarazi zuen eta lekukoen esanetan leherketa handia izan zen.

JAIOTZAK

- Paula Gonzalez Ayerbe. Urriaren 1ean.
- Iñaki Mujika Balzategi. 6an.
- Julen Azpilikueta Mozo. 4ean.

EZKONTZAK

- Jose Maria Soto Paunero eta Maria Estibaliz Aixa Landa. Urriaren 7an. Elizaz.
- Manuel Hernandez Sanchez eta Maria Teresa Baños Maraver. 7an. Elizaz.
- Jose Luis Alonso Dominguez eta Mari Karmen Sanchez Davila. 14an. Zibilez

HILDAKOAK

- Julian Moyano Sopo. Irailaren 24an. 72 urte.
- Marcos Ibañe Amutxastegi. 23an. 69 urte.
- Isabel Pozo Delgado. 26an. 72 urte.
- Leticia Albina Vivolini Veia. 28an. 85 urte.
- Juana Berezibar Azula. 29an. 83 urte.
- Saturnino Abarrategi Arkauz. Urriaren 1ean. 87 urte.
- Anunciación Garai Barrutia. 1ean. 90 urte.
- Candida Eginola Dulce. 6an. 67 urte.
- Santiago Mujika Zendoya. 7an. 86 urte.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



* Sagra Lopez

Emakumeari buruzko Pekingo Konferentzia

Emakumeari buruzko ONUko IV. Konferentzia mundiala amaituta dagoela eta behin erabakiak ezagututa, esan beharra dago emakume askok arretaz jarraitu dugula emakumeen eskubideak kolokan jartzen dituen konferentziaren garapena txunditurik... talde ziniko eta hipokritak eramandako negoziaketa batzuen aurrean: benetan gure eskubideak zapaltzen dituzten gobernuak, botoaren eskubidea duten erlijio-ordezkariek, inorengandik aukeratuak izan ez diren baina zilegizko ordezkariek sozial direla uste duten integrista katoliko eta musulmanak, eta emakumeen eskubide eta aldarrikapenez ardurarik ez duten estadistak, munduko

botere eta garapenaren rantinean puntuak irabazteko ez bada.

Izango dituen erreserbak kontuan hartuz, oraindik ere azken agiriaren mami osoa ezagutzen ez delarik, dakiguna zera da, Pekinetik irten den Ekintza-Plataformaren egiaztapenak hasieratik muga garrantzitsuak izango dituela: presio politiko-erlijiosoan negoziaturiko doku-

.....
Pekinetik irten den Ekintza-Plataformaren egiaztapenak hasieratik muga garrantzitsuak izango ditu.

mentu bat delako, non emakumeen berezko eskubideak azaltzen ez diren. ONUk hartutako edozein erabakik bezala, ez duelako loturarik bere kunplimenduekin, ezta sinatzen duten herritarrentzat ere; ez baita finkatzen nondik irtengo diren errekurso materialak dena martxan jartzeke; ez baita finkatzen bere benetako kunplimendu eranginkorrerako inungo tresnarik, sinatzen duten gobernuek praktikan koherenteak izango balira, emakumearen diskriminazioa orain dela asko mundutik desagertuta egongo litzateke; eta bereziki interes ekonomiko hauek dira gure zapalkuntza eta ezberdintasun egoeraren errudun handienak.

EGIZAN-EKO KIDEA

USTEAK USTE

EGURALDI ONA DALA TA...

Udazken hasiera izugarria edukitzen ari gara, udara-udarako tenperaturak eta zerua urdin-urdin abuztuan ez bezala. Urkuluko urtegia erdi hutsik dagoela ere jakin izan dugu. Jertsea eta euritakoa jantzi beharrean batzuk eguzkia hartzeko aprobetxatzen ari dira. Eguraldiaz ari garenez, ATBk ere eguraldiaren nondik norakoak ematen dizkigu, Meteosat eta guzti, nork esan.

Pilarica zubia eta eguraldi hau, ehiztari, eta zoritxarrez eskopetero askorentzat, loteria bezala etorri da. Bete betean da hauen garaia eta. Baso eta mendiak ederren udazkenean egoten ei dira, orri horiak erortzen direnean kolore aparta hartzen dute.

Baina ehiztari, motokrossero, todoterrenoen dabiltzanak eta abarrekin ez al da arriskutsua izaten udazkenetako mendia? ez ote gara hor ere lasai ibili behar? mendian ere, koto desberdinak jarri behar ote ditugu, modalitate desberdinentzat?

Udazkeneko parajea polita da baina, txangoren bat egitekotan bazara, kontuz nondik zoazen, ehiztari eta motorroak aske dabil-tza!

JON ALDANONDO

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Txitxinpe

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Lehortea handia den arren orain dela bost urte egoera txarragoa zen.

Erdira egonda ere, bederatziz hilabeterako ura Urkulun

Ur Partzuergoek astelehenean egin zuten neurketaren arabera, Urkulu bere kapazitatearen %55,72an dago. Astero 160.000 m³ ur kontsumitzen dela kontuan izanik, euririk egingo ez balu ere bederatziz hilabeterako ura dago urtegiak.

Urtero ekaina inguruan behera egiten du urtegiak, baina aurten jeitsiera apirilean hasi zen igartzen. Euri kopuruaren inguruan Ikerlanek hartutako datuen arabera, martxoan metro karratuko 153,9 litro jaso ziren, apirilean 75,4, maiatzean zertxobait gehiago baina ekainean 14,4 litro besterik ez. Urkuluko itxura txarra izan arren, orain dela bost urte egoera okerragoa izan zen; orduan Sasoi honetan kapazitatearen %50,74an zegoen.

Fluorra bota

Urkuluko ura fluoraztatzeko aprobak egiten jarraitzen du Osakidetzak. Hasieran litroko 0,3 miligramo botatzen hasi ziren

eta apurka-apurka kopuru hori gehituz joan dira baina ez diote litroko 0,8 baino gehiago botako. Urte amaierarako aprobak bukatu eta etxeetara ur fluoratua iritsiko da. Kariesa eragotzen duelako erabiltzen da fluorra eta Eusko Jaurlaritzak ateratako legearen arabera 30.000 lagun baino gehiagoren artean ura banatzen duten urtegiak ura fluoraztatu egin behar da. Talde ekologisten ustez, ostera, fluorra produktu toxiko eta arriskutsua da eta kariesaren arazoa beste bide batzuetatik konpondu beharko litzateke.

Horrez gain, dagoeneko bukatua dago Soraluzetik Eibarrera ura bidaltzeko proiektua. Urkulutik Soraluzera bitarteko lotura eginda dagoenez, orain Eibarrera artekoa egingo dute. Eibartarrek ura Aixolatik jasotzen jarraituko dute baina baita Urkulutik behar dutenean ere. Urkulun beste urtegi bat egiteko asmoa, berriz, oraindik aztertzen ari diren gaia da.

50 milioi Arrasatera

Asteazkeneko ONCE sariak 50 milioi utzi zituen Arrasaten. 16.453 zenbakia izan zen sariduna eta bi tokitan saldu ziren boleto sari-duna: Maala inguruan eta ambulatorioan.

Bi seinale berri

Herri barruko trafikoa arindu nahiez, bi seinale berri jarri dira. Maala kalearen inguruan ipini dute bat eta seinale horrek, Bergara-Arrasate norabidean datozen auto-eei ezkerretara egitea debekatzen die. Beste seinalea Garibai etorbidean jarri da, Aretxabaletatik datozen auto-eei Garibai etorbidera sartzeko galerazteko.

Merkatariendako bulegoa ireki

Hamar hilabetetan itxita egon ondoren, merkatariei laguntza tekniko emango dien bulegoa berriz ere zabalik dago. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaz eta Ibai-Artek kontratatu duen teknikariarekin, aste honetan abian jarri da Deba Garaiko merkatarien zerbitzura egongo den bulegoa. Rakel Garciak, teknikariak, informazioa eta aholkularitza emango die dendariei eta Ibai-Arteren egitasmoak ere aurrera eramango ditu. Bulegoa Zaldibar ikastetxean dago.

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84



Arazoak arazo, nahi dutenek euskara ikastaroak izango dituzte aurten ere UNEDeko EKDn.

Ikasturtea hasiko da UNEDeko euskara departamentuan

Bergarako UNEDeko Patronatoak Euskal Kultur Departamentua ixteko asmoa adierazi arren, normaltasunez hasiko da ikasturtea datorren azaroaren 4ean. "Orain edo sekula ez" esaldia erabili zuen Juan Martin Elexpuru irakasleak gaur egungo UNEDeko egoera aipatzerakoan. Izan ere, hile bukaera arte UNEDeko ikastaroetarako izena emateko aukera dago eta jendeak ondo erantzunez gero, baliteke UNEDeko Patronatoak EKD ixteko erabakia bi aldiz pentsatzea.

Datuek argi erakusten dute euskaren aldeko lan handia egin duela EKDK: 10.000

ikasletik gora 18 urtetan, EGA titulua bertan lortzeko aukera eta ikasteko liburuak, euskarari buruzko ikerketak... Arrasatearrak ere urtez urte izan dira larunbat goizetan burutu diren ikastaroen bezero: 400-500 ikasle departamentua sortu zenetik; 8 lagun irakasle-gisa.

Aurtengo ikasturteari begira, EGA titulorako ikastaroak, Sakontze Maila egitekoa eta bi ikastaro berriren eskaintza du Bergarako UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak, Ikertze maila bata; eta NIaren idazketak: autobiografia eta diarioak bestea.

Aixola-rekin joan-etorri

Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko 90 ikasle joaten dira egunero Donostia edo Bilbora, Aixolak (ikasleen elkarteak) antolatutako autobus zerbitzuan. Bilbora 71 ikasle joaten dira eta Donostiara 19. Bi hiriburuetara joan behar duten ikasleek autobus bera hartzen dute, baina Eibarren hango ikasleekin elkartu eta banatu egiten dira Donostia edo Bilbora joan behar dutenak. Goizetan hiru autobus ateratzen dira eta bueltarako lau autobus daude.

Hilero 12.000 pezeta kostatzen da Donostia edo Bilbora joateko autobus zerbitzua.

Arrasatearra larri zaurituta

Astearte eguerdian gertatu zen istripuaren ondorioz, 33 urteko Dorleta A.E. arrasatearra larriki zauritua dago. Istripua Elorriorako bidean gertatu zen, Elgetako mendate inguruan, arrasatearren autoak eta beste batek elkar jo zutenean. Arrasatearra Eskualde Ospitalean ingratsatuta dago.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Sailsa ■

LAN ESKAINTZA

Arrasateko Udalak funtzionari plaza hauek hornitzeko asmoa du:

- .- ADMINISTRARI OROKORREKO TEKNIKARIA (Zuzenbide Lizentziatua)
- .- OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BURUA (Goi mailako tituloduna)

Deialdiak arautuko dituen Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urriaren 19an, 199 zenbakian argitaratu dira.

Instantziak aurkezteko epea azaroaren 8an, asteazkena, arratsaldeko 6.30etan, itxiko da.

Autobus urbanoaren eraketa bultza dezake geltokien gutxitzeak

Hiriburuetatik joan-etorria egiten duten autobusak ez direnez Musakola eta San Andreseko geltokietan geratzen, Zerbitzu Batzordea arazoa nola konpondu eztabaibatzen ari da. J. J. Saenz batzordeburuaren esanetan "hiriburuetan ibilbide luzeko autobusak geltoki batean geratzen dira baina autobus urbanoen zerbitzuari esker, ez da arazorik izaten. Arrasaten herri barruko autobusik ez dagoenez, erdialdea urrun geratzen zaie auzoetan bizi direnei".

Gabezia bideratu nahiez Zerbitzu Saila autobus urbanoa jartzeko aukera aztertzen hasi da. Batzordeburuaren iritziz, "ezer baino lehen aukera desberdinak aztertu



Autobus urbanoaren eraketa alderdi gehienek aldarrikatu izan dute.

beharko ditugu. Lehenengo Pesa-rekin harremanetan jarriko gara autobus urbanoa jartzearen ideia zer iruditzen zaien jakin eta zein kostu izango lukeen zenbatzeko. Ondo-

ren eta aurrera egitea erabakitzen badugu, zerbitzua partikular batek gestionatuko duen edo municipalak izan daitekeen aztertu beharko da".

Ibilbide luzeko autobu-

sek denbora irabaz dezaten, Pesa-ren autobusak geltoki gutxiagotan geratzen dira orain. Kontsumitzaileen bulegoan hamar salaketa jaso dira geltokien gutxitzearen eta zerbitzuaren antolaketaren aurka protesta egiteko. Hiriburuetar joateko behar beste autobus dago, baina Zumarraga edo Durangora joateko, adibidez, konbinazio gutxiko eta erabiltzaileek zerbitzua zabaltzea eskatzen dute.

Autobus urbanoaren eraketa aldarrikatu zuten alderdi gehienek hauteskunde kampainan, hortaz akordioa erraza izan beharko litzateke. Izan dezakeen kostuagatik hala ere, zailagoa izango da zerbitzua bera abian jartzea.

GIPYZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 95 AZKEN-LAYRDENAK


- NOIZ: Urriak 22, igandea.
- NON: Amaia Antzokian.
- ORDUA: Arratsaldeko 5.30tan.

ANTOLATZAILEA



Gipuzkoako Bertsolari Elkarte

BABESLE NAGUSIA



Kutxa Fundazioa

LAGUNTZAILEA



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Ekin emakume taldeak antolatu saloi **dantza ikastaroa** hasi zen astelehenean. Natalio Maiztegi Oñatiko irakaslearen gidaritzapenean 15

emakume ari dira jo eta sua rock rolla, saltsa, tangoa, pasadoblea eta merengea ikasten. Astelehenero elkartzen dira arratsaldeko 5. 30etan.



Tuteran ospatu da aurtengo **Nafarroa Oinez**. Erriberrako herrian milaka lagun elkartu zen eta eguraldia lagun egun zoragarria pasatzeko aukera izan zuten

hurbildutako guztiek. Arrasatetik 15 lagun joan ziren zapatuan laguntzera, txoznetak egin zuten lan. Lan egin eta juerga ere bai, jakina!



Ruper Ordorika kantari oñatiarra Arrasaten izan zen martitzenean. Arrasateko irratiko lagunek elkarrizketa egin zioten eta ondoren ATBra etorri zen **Nor Nori Rock** musika saiorako abesti batzuk kantatzera.



Alberto Sanchez eta **Ainhoa Lasa** uztailaren 22an ezkondu ziren Dorletan.

Bazkaria Gure -Ametsan izan zuten eta ezkon - bidaian Brasilen izan dira. Zorionak!

EPELDE

HITZALDIA: Emakumea Txinako konferentzian

HIZLARIA: Amaia Zabaleta (Hairouko konferentziako partaidea)

Urriak 26 (osteguna), arratsaldeko 7etan • AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4 behe)

ANTOLATZAILEA: EGIN Emakumeak, AED Elkarte
LAGUNTZAILEAK: Udala, Foru Aldundia, Emakunde.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko 25 lagun joan ziren AEDko gazteak antolatutako 3 haundixek 3 egunetan mendi irteerara. Ostegunean irten zuten Arrasatetik eta Anboto, Aizkorri eta Gorbea tontorrak igo eta gero, zapatuan itzuli ziren. Eguraldi zoragarriaz primeran pasa dutela jakin izan dugu, nahiz eta bateren bat leher eginda etorri. Argazkia Aitzgorri puntan dago aterata.

Juan Jose Balzategi, Bixente Zurbano, Espe Mendizabal, Edurne Leibar eta Elena Landa Nafarroako Mugaire herrian izan dira asteburuan eta Amanita Caesarea motako perrekitxu mordoa hartu dute. Amanita Caesarea perretxikuen artean erregina ei da eta erromataren garaitik Europako herrialde guztietan perretxiku preziatuena izan da. Arrasatear hauek pozik egoteko arrazoirik badute, izan ere, ez da normala perretxiku mota hori aurkitzea. On egin !



IZEN PROPIOAK

● Udal Euskaltegiak bi irakasle kontratatu ditu praktiketarako: **Goretti Ayastui**, 26 urteko atxabaltarra eta Euskal Filologian lizentziatua. **Josune Errarte** 26 urteko arrasatearra. Josunek ere Euskal filologia ikasi zuen Gasteizen. Bi irakasle berriak ekaina arte izango dira praktiketan.

TXOKO TABERNA
 Gure berezitasunak
 pintxo eta
 mokatu gozoak

HIES EKIMENA
 Astelehen, astearte eta ostiral
 5etatik 8etara.
 Tfnoa: 79 26 99

**ZUBIZARRETA
 TAILERRAK**
 Gipuzkoa Etorbidea, 22
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 15 65

EMAKUME, lanbide guztiak zabalik daude zuretzat, **HEZI ZAITEZ!**

LANBIDE HEZIKETARAKO IKASTAROA Geriatría kualifikazioa- 3. adina

Matrikula epea: Urriaren 16tik 27ra bitartean.

• Iraupena: 400 ordu.

• Ordutegia: Goizez.

Antolatzailea

Gizarte eta Heziketa Zentrua.

Eusko Jaurlaritzako Lan Sailaren eta Fondo Sozial Europearraren diru-laguntzaz.

Laguntzailea

Emakunde



INFORMAZIOA GEHIAGORAKO

famili eta gizarte-heziketarako zentrua gipuzkoa-donostia kutzaren gizarte ekintza

Santa Teresa, 12 ARRASATE • Tfnoa: 79 04 59



LAN BILA

LAN BILA BULEGOA
ALDIKAKO LAN ENPRESA

Orain, "LAN BILA" enpresaren delegazio bezala, zuri egokitzen zaizun lana aurkituko dizugu:

- ADMINISTRATIBOAK
- INFORMATIKOAK
- KOMERTZIALAK
- IDAZKARITZA
- TEKNIKARIAK
- ERAIKUNTZA
- INDUSTRIA...

Benetan zure asmoa lan egitea bada...

**Zatoz eta informa
zaitez!!**

ERAÑA aholkularitza



Jokin Zaitegi enparantza, 6 (Roneoko etxeak) • Tfnoa: 79 83 95 • Faxa: 79 79 07 • ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketa

Bigarren ihardunaldian gol kopuru handia • Protagonistak: Rikardo Lz. Rekarte eta Igor Kortazar • Taldeen aurkezpena: Tronkoteak, Lorategi, Ke Oxtias eta Altza Porru



Bigarren ihardunaldian emaitza ikusgarriak izan dira. Ke Oxtiasek 23 eta 3 irabazi zion Baneukori. Neurketa zapatuan arratsaldeko 5etan jokatu zen eta Baneuko taldean behar beste jokalaria azaldu ez zirenez, DKBko bi jokalarik jokatu zuten eurekin. Hori Zaldibarren ezinezkoa da eta horrelakoetan aurka egiteko aukera dago. Salaketa egiteko epean inortxok ez duenez ezer egin, emaitza ontzat eman da. Sortu Informatikak ere jipoi galanta eman zion Gaztetzokoa taldeari, 16 eta 3 izan zen azken emaitza.



**Felipe
Arrizabalaga
AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	2	2	0	0	19	4	4
Sokoakoak	2	2	0	0	15	7	4
Arrasate Kirolak	2	2	0	0	8	4	4
Argi Ibili	2	2	0	0	17	10	4
Totem	2	1	1	0	6	3	3
Jotakabau	2	1	1	0	7	6	3
Sortu Informatika	2	1	0	1	19	10	2
Frantziscanner	2	1	0	1	6	4	2
Kamasutra	2	1	0	1	8	6	2
D.A Iriztu	2	1	0	1	7	7	2
Alealee	2	1	0	1	7	12	2
Toss Tehaman	2	1	0	1	6	15	2
Uglys Txinato	2	1	0	1	8	9	1
Tronkoteak	2	0	1	1	2	7	1
Kakajauri	2	0	0	2	9	12	0
Gualtrapas	2	0	0	2	6	11	0
Bukanak	2	0	0	2	5	13	0
Gaztetzokoa	2	0	0	2	6	21	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Okoretegi Tab.	2	2	0	0	9	0	4
Altza Porru	2	2	0	0	11	3	4
Txeyenex	2	2	0	0	9	4	4
Fosforos	2	2	0	0	11	5	4
AC Surcos	2	2	0	0	7	5	4
Lorategi	2	1	0	1	5	3	2
6º Proiektua	2	1	0	1	6	5	2
Berango Sukald.	2	1	0	1	8	5	2
Adelaida Haizea	2	1	0	1	12	9	2
Aizpun Bila	2	1	0	1	5	4	2
Hirei	2	1	0	1	5	4	2
DKB	2	1	0	1	10	11	2
Ojo Avisore	2	1	0	1	4	7	2
Los heredia	2	0	0	2	4	6	0
Kopyprest	2	0	0	2	4	12	0
Fraguel Gol	2	0	0	2	3	10	0
Los Dalton	2	0	0	2	4	13	0
Kirten Tropel	2	0	0	2	0	10	0

C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MSM Ingenieria	2	2	0	0	13	2	4
Koka Juniors	2	2	0	0	9	2	4
Pub People	2	2	0	0	23	8	4
Aurrera Bolie	2	2	0	0	9	3	4
Danok Lagun	2	2	0	0	13	6	4
Cer Leitz	2	2	0	0	8	4	4
Ke Oxtias	2	1	0	1	26	9	2
Leya	2	1	0	1	8	7	2
Artzanos Udalaiz	2	1	0	1	6	4	2
Ex Lete	2	1	0	1	14	16	2
Kinito team	2	1	0	1	7	9	2
Zotz Motz	2	1	0	1	7	10	2
Perrahotsa	2	0	0	2	4	9	0
Pepelus	2	0	0	2	4	13	0
Kriskibalda	2	0	0	2	3	10	0
Resakas	2	0	0	2	3	13	0
Petroleros	2	0	0	2	1	0	0
Baneuko	2	0	0	2	3	27	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Anbotoste	2	2	0	0	14	2	4
Trikiti	2	2	0	0	14	4	4
Borrock Roll	2	2	0	0	6	3	4
A ti que te importa	2	2	0	0	8	3	4
Los Dimy	2	1	1	0	4	3	3
Betrayer	2	1	1	0	9	7	3
Nuevo Taberna	2	0	2	0	8	8	2
Ganbelas	2	1	0	1	9	9	2
Insert Coin	2	1	0	1	4	4	2
Irati STS	2	1	0	1	7	7	2
Lauterbrunnen	2	1	0	1	10	10	2
No Comment	2	1	0	1	8	8	2
Arrasate Zoo	2	1	0	1	5	7	2
Txarokis	2	0	0	2	6	9	0
HMKL	2	0	0	2	6	14	0
Potrosorri	2	0	0	2	2	5	0
Cons Fercon	2	0	0	2	6	18	0
Elisabeth	2	0	0	2	2	7	0

Emaitzak

A Taldea

kakajauri 7 - Argi Ibili 8
Arrasate Kirolak 4 - Bukanak 2
Orlando Piratas 12 - Toss Tehaman 1
Sortu Informatika 16 -
Gaztetzokoa 3
D.A Iriztu 6 - Tronkoteak 1
Kamasutra 2 - Toem 5
Gualtrapas 3 - Sokoakoak 5
Frantziscanner 0 - Jotakabau 1
Uglys Txinato 2 - Alealee 3

B Taldea

Los Heredia 1 - Ojo Avisore 2
A.C Surcos 3 - Berango Sukaldeak 2
Txeyenex 7 - Fraguel Gol 3
Hirei 4 - Aizpun Bila 2
Adelaida Haizea 5 - Fosforos 6
DKB 7 - Kopyprest 4
Kirten Tropel 0 - Okoretegi Taberna 7
Lorategi 2 - Altza Porru 3
Los Dalton 3 - 6º Proiektua 8

E Taldea

Exc Lete 10 - Resakas 2
Pub People 9 - Zotz Motz 4
Pepelus 2 - MSM Ingenier 8
Aurrera Bolie 3 - Petroleros 1
Danok Lagun 8 - Kinito Team 4
Kriskibalda 1 - Artzanos Udalaiz 5
Leya 2 - Cer Leintz 4
Ke Oxtias 23 - Baneuko 3
Koka Juniors 5 - Perrahotsa 2

D Taldea

Cons Fercon 1 - Anbotoste 11
No Comment 1 - Insert Coin 3
Betrayer 6 - Nuevo Taberna 6
Potrosorri 1 - Los Dimy 2
Ganbelas 4 - Elisabeth 2
Lauterbrunnen 3 - Borrock Roll 5
Irati STS 6 - Txarokis 5
Ati que te importa 6 - HMKL 4
Trikiti 6 - Arrasate Zoo 2

Hurrengo partiduak

Larunbata 21

Zaldibar

8.50 Danok Lagun - Artzankos Udalaiz
10.00 Hirei - Fraguel Gol
11.00 Ganbelas - Borrock Roll
12.00 Txeyenex - Aizpun bila
13.00 Betrayer - Los Dimy
14.00 Kirten Tropel - 6º Proiektua
15.00 Potrosorri - Nuevo taberna
16.00 Kriskibalda - Kinito Team
17.00 HMKL - Txarokis
18.00 Frantziscanner - Uglys Txinato
19.00 A ti que te importa - Trikiti

Iturripe A

10.00 Ke Oxtias - Koka Juniors
11.00 Lauterbrunnen - Elisabeth
12.00 Kakajauri - Bukanak
13.00 Los Heredia - Berango Sukaldeak
14.00 Ex Lete - Zotz Motz
15.00 AC Surcos - Ojo Avisore
16.00 Irati STS - Arrasate Zoo
17.00 DKB - Fosforos
18.00 Arrasate Kirolak - Argi Ibili
19.00 No Comment - Anbotoste

Iturripe B

13.00 Orlando Piratas - Gaztetzokoa
14.00 Pub People - Resakas
15.00 Adelaida - Kopyprest
16.00 Jotakabau - Sokoakoak
17.00 Const - Fercon - Insert Coin
18.00 Aurrera Bolie - MDSM Ingenier
19.00 Sortu Informatika - Toss Tehaman

Igandea 22

Zaldibar

8.50 Kamasutra - Tronkoteak
10.00 Lorategi - Los Dalton
11.00 Gualtrapas - Alealee
12.00 D.A Iriztu - Totem
13.00 Altza Porru - Okoretegi Taberna

Iturripe A

11.00 Pepelus - Petroleros
12.00 Baneuko - Cer Leitz
13.00 Leya - Perrahotsa

Protagonistak

Igor Kortazar Altza Porru taldekoa

— Nola joan da neurketa?

— Gogorra izan da baina azkenean irabazi egin dugu eta hori da garrantzitsuena.

— Zer da zuretzat Zaldibar Txapelketa?

— Astebukaeran denbora pasa eta kirola egiteko toki bat.

— Aurtengo helburua?

— Lehen fasea egin eta etxera joan, ez dut uste hurrengo fasera pasatuko garenik.



— Entrenatzen duzu?

— Txapelketa prestatzeko ez dut ezer egiten, aste-

buruetako partiduekin nahikoa da.

— Ikusleek giro jatorra jartzen dute?

— Zaldibarren giro polita egoten da. Iturripe hotzagoa da.

— Talde faboritoak?

— Betikoak baina aukera askorekin Fosforos ikusten dut.

— Epailen lana ona da?

— Ez, nahiko txarra. Asko kexatzen gara epaileez baina gero norberari tokatzen zaionean beste kontu bat izaten da.

Labur

■ **GOLAK BARRA BARRA.** Golak izan dira protagonista txapelketako bigarren ihardunaldian. Guztira 321 sartu dira eta multzoka E taldea izan da golegileena 96 golekin, A multzoan 82 sartu dira, Bn 69 eta D taldean 74 gol.

■ **EGUTEGIA.** Urtero banatzen den egutegi txikia banatu da. Dagoeneko talde guztiek dute.

Rikardo Lz. Recarte Lorategi taldekoa

— Nola ikusi duzu neurketa?

— Gogorra izan da, borroka bizian aritu gara baina azkenean Altza Porrukøek irabazi dute.

— Iskanbila ere egon da, ezta?

— Nerbioak kontrolatzeko ahaleginak egiten ditugu baina askotan ezinezkoa da. Gura barik sutan jartzen gara, beharbada gehiegi bizi dugu-

lako txapelketa.

— Epailen lana nolakoa izaten da?

— Epailen artean kontrol gutxi dago. Badakit epaitzea zaila dena, horregatik uste dut epaile finkoak egotea onena izango litzatekeela, ardura hori hartzen duen jendea eta kontrola daramana. Taldeek epaitzen dugunean desberdintasunak egiteko arriskua dago.

— Antolakuntza eta arauen gainean zer duzu esateko?

— Kornerrak nola ate-



ratzen diren ez zait gustatzen. Kornerrak hankaz atera beharko lirateke, ez eskuez. Gainontzeko arauak ondo

daude.

— Aurtengo helburuak?

— Ahalik eta txapelketa onena egin urrutien heltzeko eta epe motzeko asmoa hurrengo fasera pasatzea.

— Talde faboritoak?

— Fosforos ziur eta gero Argi Ibili eta Okoretegik ere aukera asko dute.

— Astean zehar entrenatzen duzu?

— Martitzenetan entrenatzen dut. Zapatuan sasoiari egoteko astean zehar kirola egitea beharrezkoa da.

KANPAZAR FIAT

AZKEN BELAUNALDIA TEKNOLOGIAN.



BRAVO

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 184 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 193 Km/h)
2.0 20v (147 cv, 210 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

ERAKUSKETA:
Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa 79 77 66



BRAVA

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 180 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 190 Km/h)
1.9 D (65 dv, 155 Km/h)

TAILERRA
Bizkaia Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tfnoa 79 41 98



Ke oxtias!



Lorategi




Altza Porru



Tronkoteak

**Haurdun
dauden
neskentzat
egun-
eguneko
moda**



**Udazkene-
rako moda
gaztea,
taila
bereziak
barne**

Laura

**Erdiko Kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE**

● *Jon Ugalde*

Bi mila bider Udalaizera

Jon Ugalde, 72 urterekin, Arrasateko mendizale amorratuenetariko bat da. Jubilatu zenetik oso eguraldi txarra ez badago, egunero 1.092m. dituen Udalaiz mendira igotzen da eta Azaroan 2.000 garren aldia egingo du.

- Zergatik duzu Udalaizera egunero igotzeko nahi hori?

- Paraje polita izatez aparte etxe alboan dudalako. Egia da paraje politagoak daudela baina kotxea erabili beharko nuke eta horrelakorik ez dut nahi. Denbora txarra egiten duenean Urkulura joaten naiz, buelta bat eman eta berriro etxera.

- Zenbat denbora egoten zara mendian?

- Etxetik goizeko 9.15ak inguruan irtetzen naiz. Gailurreraino igotzea gutxi gorabehera ordu bat eta berrogei minutu kostatzen zait. Gurutzera heltzean lazandu egiten dut eta errezo bat botatzen dut hil zaizkidan lagunen izenean. Hori egin ondoren etxera bueltatzen naiz.

- Zenbatetan egon zara Udalaizten?

- 1987garren urtean 222

aldiz igo nuen; 1988garrenean Benidorm, Donosti eta Mallorcan oporretan egon nintzenez, bakarrik 160 alditan. 1989garren urtean 219 aldiz, 1990ean 207, 1991an 240, 1992an 245, 1993an 261 eta 1994an 245 aldiz.

Azaroan 2.000garren igoera lortzeko prest nago.

- Udalaiz mendira igotzeko zein bide hartu ohi duzu?

- Udalaizera igotzeko lau bide daude. Normala, zuzenean igotzen dena, Kanpanzartik, Txukurriolik edo Besaidetik.

Ni beti Txukurriolik igotzen naiz, biderik errezena da eta. Zailena Kanpanzarko bidea da niretzat.


- Norbaitekin joaten zara mendira?

- Etxetik bakarrik irtetzen naiz, baina beti topatzen dut lagunen bat bidean zehar. Ez dut inongo arriskurik ikusten baina emaztea haserretu egiten da bakarrik noala jakiten duenean.

- Mendian noizbait istripurik izan duzu?

- Orain arte ez.

- Zein urtaro gustatzen zai-



zu gehien mendira joateko?

- Udazkena da urtarorik politena.

- Pasa den ostegunean Udalaiz eguna ospatu zen, nola igaro zenuen?

- Bertora igo eta meza entzun genuen. Ondoren lagunekin tragu batzuk edan eta gazta apur bat jan genuen. Hizeketaldi baten ostean etxera jetsi nintzen bazkaltzera.

- Lehen esan duzu Udalaizera igotzean lagunekin topo egin ohi duzula, beti jende berdina topatzen al duzu?

- Jende ugari igotzen da Udalaizera, dagoeneko gehienak ezagunak ditut. Lagun ugari egin daiteke mendian.

- Zein aholku emango zenioke mendira joatea pentsatzen ari den pertsona horri?

- Emaztea haserre ez dadin ... mendira bakarrik ez joateko. Bestalde atzekoei ere begi-

rada bat bota behar zaie. Eta lasaitasunez hartu gailurra ez da joango eta!!

- Noizbait pentsatu duzu egunero Udalaizera igotzeari amaiera ematea?

- Egia esan nik ez dut horrelakorik egiteko gogoia baina emazteak debekatu egin dit egunero mendira igotzea. Esan bezala, mendira bakarrik joateak beldur handia ematen dit, niretzat arrisku-tsuegia dela uste dtu. Hala ere emaztearekin akordio batera iristea lortu dut. Udalaizera 2.000 igoerak lortutakoan laster bere esana jarraituko dut, ondorioz ez dut hainbestetan gurutzera laztantzerik izango.

- Kuriositate bat, erretzen al duzu?

Orain ez, baina lehen erre egiten nuen. Jubilazioarekin batera mendizaletu eta erreteari utzi nion.

● **“Udalaiz mendi gailurrean zeruaren alboan sentitzen naiz eta era horretan hil zaizkidan lagunekin hitzegin dezaket”**

Birziklapena

Naturaren aldeko keinua

Maria Agirre

Birziklapena, lehenago erabili den zerbait berriro erabiltzeko berreskuratzea, ingurugiroaren alde egin daitkeen ekintza bikainenetariko bat da. Papera eta kartoia zaborrera bota beharrean horiek jasotzeko dauden edukiontzietara botatzeari esker, zuhaitz batzuk tente jarraitzen dute. Beira birziklatzeak ere mesede handia egiten dio naturari, era horretan harrobiak gutxiago zulatzen dira eta. Natura zaintzea eta lehengaiak aurrezteak dira birziklapenaren abantailak.



Mankomunitateko arduradunak pozik daude bailaran jasotzen den beira, paper eta pila kopuruarekin.

Zorionez, urtetik urtera birziklapenak gero eta jarraitzaile gehiago du bailaran eta baita Arrasaten ere. Mankomunitateko arduradunak pozik daude inguruko herrietan jasotzen den beira, paper eta pila kopuruarekin. Gipuzkoan eta Euskal Herrian gehien birziklatzen dutenen artean dago bailara, baina Europako herri batzuekin konparatuta atzean oraindik.

BEIRA LEHENENGO

Beira jasotzeko edukiontzia izan ziren kaleetako txoko bat bete zuten lehe-

nak. 1984an hainbat bilgune jarri zen Mankomunitateko bost herritan.

Iaz 787.020 kilo beira jaso ziren Deba Garaian eta 263.597 kilo Arrasaten. Laudioko Vidrala enpresa beira jaso eta birziklatzeaz arduratzen da. Lantegian beira hauts bihurtzen dute, ondoren hauts horrekin botila berriak egiteko. Beira egiteko silizea, kareharria eta sosa errautsa erabiltzen dira eta lehengai horiek harrobiak edo kanterak ustiatuz lortzen dira. Beira birziklatzeak harro-



biak gutxiago zulatzea eta petrolio aurrezteak dakar.

Arrasaten beira uzteko 50 edukiontzi daude; 500 biztanleko edukiontzi bat.

PAPERA ETA KARTOIA ONDOREN

92an paperaren eta kartoiaren txanda heldu zen. Apurka-apurka gero eta gehiago dira edukiontzi horiei bisita egiten dieten herritarrak eta hori urtero batzen diren kopuruetan igarri egiten da.

94an 860.700 kilo paper eta kartoi batu ziren bailaran eta Arrasaten 344.000 kilo.

Orain dela gutxi arte Mankomunitateari ez zion diru sarrerarik ekartzen papera birziklatzen duen enpresari lehengai emateak, baina aurten papera ordaintzen hasi dira. Papera lehenengo sailkatu egiten da, gero suntsitu eta garbitu, ondoren enbalatu eta azkenik berria egin. Papera birziklatzeak onura ugari ekartzen dio naturari; basoetatik egur gutxiago atera behar izatea eta uraren kutsadura gutxitzea besteak beste.

Papera uzteko 32 edukiontzi daude Arrasaten bai-

na helburua 500 biztanleko bilgune bat edukitzea denez, gehiago jartzeko asmoa dago. Seguruenez urte amaierarako kopurua gehitu egingo da.

Papera biltzeko edukiontziekin batera pilak uzteko kaxak ere badaude. Iaz 11,2 tona pila normal eta botoi erako beste 20.000 pila jaso ziren gure bailaran. Pilak ez dira birziklatzen baina Mankomunitatea Recypilas enpresara eramateaz arduratzen da eta han pilak tratatu eta lur-azpian sartzen dituzte. Botoi erakoak, berriz, ingurugirorako arriskutsuagoak direla eta, Gurutze Gorriak jasotzen ditu. Era-kunde horrek Diputazioari ematen dizkio eta Foru Aldundia arduratzen da pilak suntsitzeaz.



1992an best hondakin batzuk uzteko zerbitzua ireki zen, Hondakindegia Alternatiboa izenekoa.

HONDAKINDEGI ALTERNATIBOA

Arrasatetik Gesalibarre-rako bidean beste hondakin batzuk uzteko zerbitzua jarri zuten Mankomunitateak 1992an. Biltegi horretan hiri hondakin jakin batzuk utz daitezke, hala nola: elektrotresna zaharkituak, metalezko altzariak, bidoiak eta lata hutsak, eskonbroak, komunak, egurra, paper pintatua,

txatarra, kartoia, plastikoa... Hor utzitako txatarra eta kartoia birziklatzeko jasotzen dira baina beste hondakinak Epeleko zabortegira eramaten dira. Han maki-na batek zaborra zapaltzen du eta gero lurrez

estaltzen da.

Horrez gain, hondakin handien bilketa egiten du hileroko Mankomunitateak, etxeetako hondakin handiak jaso eta Epeleko zabortegira eramateko. Bilketa horrek ere arrakasta handia du.



ZABORREN GUTXITZEA

Mankomunitateko arduradunen esanetan, gero eta gehiago birziklatzeak zabor gutxiago erre behar izatea dakar. Birziklapenaren eraginez, azken urteotan Arrasaten jasotzen den zabor kopurua ez da jeitsi baina ezta igo ere. Etxeetan jasotzen den zabor arruntaren kopurua eta birziklatzeko edukiontzietan eta hondakindegia alternatiboan jaso ziren kartoi eta beira kiloak kontuan hartuz, 6.673.000 kilo zabor jaso ziren herrian eta horietatik 5.918.000 kilo Akeira eraman eta erre egin ziren. Beraz, badago zer aurreratu. Papera eta beira ezezik, plastikoa, tetra-brik eta aerosolak ere birzikla daitezke. Oraindik hala ere Euskal Herrian ez dago hondakin horiek eraldatuko dituen enpresarik baina etorkizun hurbilean bi zabor poltsa edukiko dira etxean; bata birziklatu ezin daitezkeen zaborrak uzteko eta bestea, berriro erabiltzeko berreskura daitezkeen dako.

Zaborra gurdiaz batzen zenean

Zabor bilketan erabat aldatu dira kontuak. Orain dela berrogeitamar urte inguru, Bixente Barandiaran arrasatearraren aita arduratzen zen herriko zaborra batzeaz eta semeak ere noizean behin aitari lan hori egiten laguntzen zion. Bixentek gogoratzen duenez, bi behik eramaten zuten gurdiaz batzen zuten etxeoandreek ateratzen zieten zaborra. Baina orduan ez zuten gaur beste zabor jasotzen. Bixenteren berbetan, beharbada eskasiak eraginda lehen dena aprobetxatzen zuten. Zaborra zena erre egiten zen etxeo ekonomikan eta hauts hori izaten zen aitak jasotzen zuena. Trapu zaharrak traperok jasotzen zituen, piper poteak txatarreroak, patata azalak ganauei ematen zitzaien. Aitak jasotzen zuen hautsa ere inguruko baserri batzuetara eramaten zen eta abonu bezala erabiltzen zen. Denboraz bilketa moeta hau atzean geratu zen eta zaborrak kamioiekin biltzeko era ezarri zen. Ordurako askoz ere zabor gehiago jasotzen zen eta zaborra Akeira eramaten zen. Ondorioz batek baino gehiagok gogoratuko duzue Akei arratoiekin zelan bete zen. Geroago Mankomunitatea izan zen zaborrak biltzeko ardura hartu zuena eta gaur egun ezagutzen diren kamioiak erosi ziren.

Juan Ramon Arana memoriala Aretxabaletan

J. R. Arana IV. memoria-la burutuko da domekan Aretxabaletan. Juan Ramon Almen ikastolako irakaslea izan zen eta orain dela lau urte hil zenean bere lagunek urtero omenaldi moduan kirolari lotutako ekintzaren bat antolatzea erabaki zuten. Juan Ramon kirolzale amorratua zen eta bere filosofia kirolaren bidez jende gaztea bideratzea zen. Horrela bada, lehen memoriala futbolari eskeini zioten, bigarrena eskubaloari, hirugarrena pilotari eta aurtengorako atletismoa aukeratu dute. Atletismo txapelketa herrikoia izango da baina goi mailako atletak espero dira. Jose Apalanza seguruen bertan izango da eta baita Keniako atleta bat ere. Parte hartzaileak infantil, kadete, junior eta beterano mailakoak izango dira. Gaztetxoek frog



Goi mailako atletak etorriko dira memorialera

goizeko 11etan hasiko da; kadeteena 11.20etan; juniorrena 12ak aldera eta beteranoena 12.30etan. Ibilbidea Aretxabaletan dago kokatuta. Izen ematea lasterketa egunean egin daiteke eta

epea frogak hasi baino 15 minutu lehenago itxiko da. Sariei dagokienez ugari eta onak izango dira. Lehen sailkatuak 60.000 pta. eta garai-kurra jasoko ditu; bigarrenak 50.000 pta. eta garai-kurra.

Hamar lehenek jasoko dute saria. Emakumezkoen arteko lehenak 30.000 pta. eta garai-kurra eramango du eta bigarrenak 20.000 pta. eta garai-kurra, bost lehenak izango dira sarituak.

Beteranoen rugby taldea osatuta

Beteranoen rugby taldeak Bordeleko Archiball taldearen kontra neurtu zituen indarrak zapatuan Bordele. Lagun arteko partidua izan zen eta arrasatearrek galdu bazuten ere, adoretzu ibili zirela esan behar.

Jokalari beterano hauek aspaldian zintzilikatu zituzten botak baina Rugbya bihotzean daramaten kirola denez, berriro hastea erabaki dute beterano taldea sortuz. Hemendik aurrera hilabetero beste talde beterano batzuen kontra pare bat partidu jokatu dituzte eta astero entrenatu beharko dute apurka-apurka sasoian jartzeko. Erronka berri bati egin diote aurre jokalariei beteranoek eta jakin izan dugunez irrika eta ilusioz beteta daude hasteko.



egizabal

poltsak • oinetakoak

Ferrerrias, 9
ARRASATE
T9 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

ESKUBALOIA

Eskubaloikoek Santanderren jokatuko dute

Eskubaloikoek ezin izan zuten denboraldiko lehen erronka gainditu. Arrasatek galdu egin zuen 25 eta 27 Avileseko Avilesina taldearen kontra. Datorren domekan bigarren partidua jokatuko dute Santanderko Cantabria taldearen kontra goizeko 11etan. Cantabria taldea lehen mailara igo berria da. Hala ere, kontuan hartu behar da Oho-rezko ligako TEKA taldearen ordekoa dela, eta goi mailako taldearen laguntza izatea beti da garrantzitsua talde lehiakor eta sendoa osatzeko.

Santanderko taldeak lehen ihardunaldian atsedena izan zuen eta oraindik ez du partidurik jokatu, beraz, ez dago jakiterik zein maila duen.

Rosa Lasagabaster entrenatzaileak jokalaria guztiak gertu izango ditu domekarako. Ibon Enbilek erdi lesionatuta jokatu zuen lehen partidua baina dagoeneko osatu da.

Lehen territorialekoek Usurbilen kontra jokatuko dute domekan goizeko 11etan Usurbilen eta jubenilek ere kanpoan jokatuko dute. Bergara eta Arrasate aurrez aurre izango dira domekan goizeko 10etan. Etxean berriz, kadeteak arituko dira. Zapatuan arratsaldeko 4etan Arrasate eta Tolosak elkarren aurka neurtuko dituzte indarrak Iturripen.



Bigarren garaipena lor dezake Arrasateko saskibaloit taldeak.

Urbina Maltzaga bigarren garaipenaren bila Galiziara

Denboraldiko lehen neurketa irabazi zuen Urbina Maltzagak Burgosko Maristas taldearen kontra. Aurkaria talde ahula izan arren, Samaniegoren mutilek beste itxura bat erakutsi zuten Iturripeko kantxan. Orain arte lortutako emaitza txarragatik izan dituzten arazoak badirudi konpontzen ari direla. Baina benetan konpondu diren jakiteko, datorren zapatuan irabazi egin beharko dute Vigoko Cies taldearen kontra. Partidua arratsaldeko 7etan jokatu da IMD kiroldegian. Cies Vigo taldeak jokatu bost neurketetatik hiru irabazi ditu eta bi galdu, zortzi punturekin sailkapeneko 6. tokian dago. Arrasateko taldean baja bakarra Pedro Rodriguez hegalekoa izan da. Pedrok Basconia

Taugresekin jokatu du. Partidua irabaztea ezinbestekoa da Arrasateko taldearentzat, egoera larria bizi izaten ari dira eta galtzeak okerreko bidea hartzea esan nahiko luke. Taldea, dena dela, baikor dago eta garaipenarekin itzultzea ez dute zalantzan jartzen.

Igor Areitio bi hilabete bajaran

Igor Areitio, Mondrako atezainak, gutxienez bi hilabetetan ezingo du jokatu. Mondrak eta Lagun onak taldeek elkarren kontra jokatu zuten domekan eta ezbeharreko jokaldi batean baloia urruntzera zihoanean Igorrek min hartu zuen bizkarrean. Atezainak bizkar hezurrean dituen hezur txiki batzuk hautsi ditu eta lesioa larria ez bada ere, guztiz osatze-

ko denbora behar da. Igorrek hilabete terdian ezingo du entrenatu eta jokatzeko arte bi hilabete igaroko dira gutxienez.

Bestalde, Mondrak Hernaniren kontra neurtuko ditu indarrak domekan arratsaldeko 5etan Zubipeko futbol zelaian. Hernani ez dabil batere ondo eta 6 punturekin sailkapeneko 18. tokian dago, 4 partidua galdu, hiru berdindu eta bakarra irabazita. Orain arte 4 gol baino ez ditu sartu eta 9 jaso. Mondrak, sailkapeneko zuloan egon arren, 11 gol sartu ditu denboraldi honetan eta 17 jaso. Gol dexente sartu du, jasotakoak gehiago izan badira ere. Taldean Areitioaren bajaz gain, Aritz Arabiourrutiak ere ezingo du jokatu txartelengatik zigortuta dago eta.

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

Yoa'z oinetakoak
ARRASATEN ZABALDU BERRIA!!
 Biteri, 13
 Tfnoa: 79 21 71
 ARRASATE
 Barrenkale, 9
 Tfnoa: 76 22 86
 BERGARA

TTUKUN
 Fotokopiak
 Enkuadernazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduzioa
 Offseta
 Ferrerías, 23 ARRASATE
 Tfnoa: 79 46 62



ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

AUTOENPLEGU PROGRAMA 1995 DEIALDIA

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak Autoenplegua bultzatzeko 95eko Programa abian jarri nahi du.

Programaren helburua: Autoenpleguaren bidea sustatu, enpresa-plana burutzeko eta negozioa abian jarri aurreko urratsak emateko laguntza eskainiz.

Nori zuzenduta: Autoenpleguaren bidea jorratzeko edo negozio ideia bat abian jartzeko asmoa daukaten promotoreei.

Zer eskaintzen da: Programaren laguntzak bi ataletan banatu daitezke:

- .- **Prestakuntza- Tutoretza:** Enpresa-plana eta bideragarritasun estudioa burutzen laguntzeko ikastaro teoriko- praktikoa.
- .- **Dirulaguntza:** Bideragarritasun estudioak sortutako gastuei aurre egiteko dirulaguntzak eskainiko zaizkie promotoreei.

Aurkezteko epea: 1995eko azaroaren 10a.

Programaren iraupena: 1995eko abendutik 1996ko martxorarte.

Interesatuta bazaude, hurbildu zaitez lehenbailehen Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzura eskabide- orria eta informazio gehiago jasotzera. **Telefonoa: 79 09 00**

Valentin Arana

Naturaren erdian koadroak margotzen

Muskulazio irakaslea da baina pintzela goxotasunez erabiltzen daki. Valentin Aranaren margoak Harresi Aretoan daude ikusgai urriaren 29ra arte. 35 urte ditu eta bere margoak Arrasaten erakusten dituen lehen aldia da hau. Paisaia bat margotzeko naturarekin harreman zuzenean egotea behar duela aitortzen du.

— Nolatan gimnasio bateko jabea eta muskulazio irakasle bat margolari?


— Jende askok galdetzen dit hori baina ez dut uste bi gauzak bateraezinez direnik. Jendeak akaso ez du jakingo baina pesak egiteko ere sentsibilitatea behar da...! Bi gauzetan aritu ahal izateko konstantzia, denbora eta gogoia behar da.

— Zenbat ordu ematen dituzu egunean margotzen?

— Beno, nik kanpoan margotzen dut, ez zait gela baten barruan margotzen egotea gustatzen. Astean behin eta asteburuetan goiza libre hartzen dut eta paisaia polit bat dagoen tokira joaten naiz margotzera.

— Kaleak, baserriak, jendea... Zer margotzen duzu zuk?

— Gehien bat paisaiak. Kontuan izanik oso leku pribilegiatu batean bizi garena, edozein paisaia izaten da polita margotzeko: Aramaioko bailara ondo-ondoan daukagu, ordu erdira Arabako lautadak, gorantz igota kostalde osoa... denbora gutxitan oso paisaia desberdinak margotu ahal izateko leku aproposera joateko aukera dago;



zoragarria da.

— Baina izango da zuri besteak baino gehiago gustatzen zaizun txokoren bat...

— Ez daukat paleta zehatz bat, hau da, kolore guztiakin margotzen dut, beraz, paisaia guztietara egokitzen naiz. Dena dela, Arabako urtegiko ingurua asko gustatzen zait. Marieta... herri txiki polit asko dago han. Kotxean noanean beti egoten naiz paisaiari begira.

— Udan ala neguan margotzea. Zer nahiago?

— Ez dit axola. Neguko kolore grisa asko gustatzen zait eta udazkeneko koloreak ere zoragarririk dira. Urtaro guztiek daukate euren edertasuna.

— Margolaria izateko sentsibilitatea behar da?

— Baietz uste dut, zeozer euki behar da, baina ez bakarrik sentsibilitatea, teknika ere beharrezkoa da eta baita dedikazioa ere... Baina bai, sentsibilitatea eduki behar da. Niri txikitatik datorkit margotzeko zaletasuna; lagunak futbolearen zeudenean nik margotu egiten nuen.

— Zein maixu izan duzu?

— 12 urterekin Julio Galartak ematen zuen ikastaro batean eman nuen izena. Gero nire kabuz, liburuea begiratuta ikasi dut.

— Margolaritza afiziotzat daukazu. Noraino heldu nahi duzu?

— Margolaritza ezin dut bizimodurik atera, baina horrek ez du esan nahi nire koadroetan interes gutxiago jartzera noanik. Koadro bat pintatzen hasten naizenean gogo guztia jartzen dut eta aurrekoa baino hobea izan dadin ahalegintzen naiz. Nire helburua gero eta hobeto margotzea da.

— Kanpoan margotzen duzu, naturarekin harremanetan. Zergatik ez gela itxi batean?

— Kanpoan margotzeko dena ematen dit. Natura eta nire arteko borroka bat da: momentu horretan ikusten ari naizena bitartekorik gabe isladatu nahi izaten dut. Argazki batetik margo bat ateratzea ez da errealitatea margotzea.

— Horrenbeste ordu mendian margotzen egon ondoren, izango duzu anekdotarik...

— Bai, beno... hotz handia pasatu izan dut eta haizeak askotan ez dit margotzen jarraitzen utzi. Askotan kotxea hartu Errioxara joateko eta hara heldu orduko berriz ere bueltan etorri behar, hango haizea izugarria da eta kotxe barruan ere ezin daiteke margotu.

.....

“Kanpoan margotzeak dena ematen dit. Natura eta nire arteko borroka bat da”


'Por mis muertos' antzezlanaren urriaren 27an Amaia Antzokian

Datorren ostiralean, urriak 27, "Geroa" eta "La Jacara" antzerki talde euskaldun eta sibiliarra, elkarlanean egin duten antzezlanarekin etorriko dira Amaia Antzokira: "Por mis muertos" lanarekin hain zuzen ere.

Uztailaren lehenean hasi ziren bi taldeak antzerki honetako entsaioekin eta abuztuaren 30ean amaitu zuten. Iraila azken konponketak egiten pasatu zuten eta duela aste gutxi Arrasaten izan ziren obraren muntaia jaso eta Amaia antzokian entsaiuak egiten.

Bi taldeek aipatzen dutenez, aspaldi zeukaten elkarrekin obra bat egiteko asmoa eta erakargarria iruditu zitzaizkien dauzkaten antzekotasun artistikoak aprobetxatuz antzerki obra bat sortzea.

"Por mis muertos" antzezlanaren belaunaldi bereko bost autorek egin duten bost lan aurkezten dira. Bost autore hauei lan bana egiteko gonbidapena luzatu zitzaizkien eta hauek baietza eman



"Geroa" eta "La Jacara" antzerki taldeen artean sortutako obra da hau.

zuten. Autoreak Bernardo Atxaga, Sergi Belbel kataluniarra, Ernesto Caballero madrildarra, Pepe Ortega gaztelarra eta Alfonso Zurro andaluziarra dira. Autoreei gaia aukeratzeko askatasun osoa eman zitzaizkien eta emigrazioa, mestizaia eta mugimendu sozialen inguruko

gaiak aukeratu zituzten. Bost lanak ikusi eta gero, lan bakoitza autore desberdinek zuzentzea pentsatu zuten bi antzerki taldeak. Zuzendariak Ramon Barea, Ernesto Caballero, Andres Lima, Pepe Ortega eta Alfonso Zurro dira.

"Por mis muertos" antzezlanaren bidez, gaur egungo dramaturgiak eta produkzio era berriak ezagutu ditzake ikusleagoak.

Antzerkia gaueko 10.30etan izango da eta sarreak 700 ptatan salduko dira. Gazte txartelarekin 500ean.



ARRASTRO Birziklaia



Erabilitako objetuen berreskurapena: altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinatikoak.

Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

**BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK
PREZIO ONENEAN!!**

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresnarik badaukazu dei egin **78 32 88** telefonora eta geuk batuko ditugu.

Gure ordutegia hurrengo da:

Astehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara.

Larunbatetan, goizeko 11etatik 2etara.

Kalezarra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1. etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24


- Aldizkariak, egunkariak
- Zinta, magnetofoiak
- Ahozkatze liburuak
- Multimedia, CD ROM
- Ikusentzunezko metodoak
- Ordenagailu ariketak
- Gramatika liburuak
- Irakurtzeko liburuak
- Bideo pelikulak
- Nobelak, komikiak
- Hiztegiak
- Textu liburuak
- Dokumentalak...

ORDUTEGIA

Astelehena,
asteazkena,
osteguna:
16tik-20ra

Ostirala:
16tik-19.30etara

MEDIATEKA




**Denentzat
zabalik!**

**Zabaltzeko
eguna:
astelehena,
urriak 16**

**Eta ikastaroa
2.500ptagatik
bakarrik !**

Mediateka



hiza sasoian bete betean sartuta gaude. Nahikoa da inguruko mendietan bueltatxo bat ematea hortaz konturatzeko, edozein bazterretik entzuten dira eta tiro hotsak. Ez pentsa horregatik, ehizarena gaur egungo gauza denik. Eskupeta asmatu zenetik egon da hemen inguruan ehizarekiko gaitasuna.

1945-46 urteetan ateratako argazkia da gaurkoa. Bertan bi ehiztari amorratu agertzen dira: ezkerrekoa **Antonio Arriola** (1977an hil zen) eta eskumakoa **Blas Madinabeitia**. Azken honek hankapean duen txakurra "Xol" zen; bestearen izenik, berriz, ez du gogoratzen Blasek, baina biak txakur finak zirela aitortzen du. Sozioak ziren Antonio eta Blas eta bienak ziren txakurrak. Gaztetan zozotan, birigarrotan ibili ei ziren, beranduago oilagorretan eta usotan, eta azken aldera erbitan. Bi tirodun eskupe-tak erabiltzen ziren orduan, hasieran kartutxoak eurek kargatzen zituzten, baina gerora erosi. Argazkian



oinetan albarkak dituztela daude Blas eta Antonio, artilezko galtzekin. "Amandreak egiten zizkion" dio Iuminada Arriolak, Anto-

nioren alabak.

Udazkenean askotan ibiltzen ziren lagun biak mendiz-mendi ehiza bila eta horregatik ez du Blasek

argazkia non atera zieten gogoratzen, baina hemen inguruan izan behar du argazkilaria Jose Maria Lasagabaster izan zen eta.

CARMEN

Ileapaindegia

Orain, astelehen goizetan ere zabalik.

Ferrerias, 50 Tfnoa: 79 03 63

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxe gozoteria

2. PLATERA


Haragia edo arraina

Etxe ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Z E R N A H I A G O ?

Yolanda Marrodan "Marina" ehorztetxe eta lora dendakoa



- **Nolatan negozio hau?** Hiletetarako lora apainketa gustatzen zitzaidan eta hori ikasi nuenez, negozioa jarri nuen.
- **Konpetentzia asko dago?** Bai, izugarrikoa.
- **Zenbat balio du hilkutxa batek?** 100.000 pta.tik milioi batera.
- **Nondik datorzkizu bezeroak?** Deba bailara osotik.
- **Zenbat lora mota daude dendan?** 50en bat, baina larrosa da gehien saltzen dena.
- **Nongoak dira lorak?** Holandakoak.
- **Non egiten dira hilkutxak?** Frantzia, Castellonen eta Italian.
- **Zaila izango da lagun bat galdu duen bezero batekin egotea...** Bai, baina ohitu egiten zara eta hotz samarra bihurtzen zara.
- **Jendeak zenbat diru gastatzen du loretan hileta baterako?** 50.000 pta. inguru; hau da, bataz beste bi koroï erosten dira.
- **Zenbat balio du koroï batek?** 20.000 eta 50.000 pta. artean.
- **Negozio honetan ez da krisirik egongo...** Ez baina konpetentzia bai.
- **Heriotzari beldurra diozu?** Ez, orain ez baina bai errespetua, eta handia gainera.
- **Jolasten duzu kartetan?** Ez.
- **Gustatzen zaizu argazkietan irtetzea?** Ez, gorrotatu egiten dut.
- **Hautzaroko oroimen berezirik?** Oso gaiztoa nintzela esaten didate baina oso oroimen zoriontsua daukat.
- **Zer da zoriontasuna?** Arazorik ez izatea.
- **Ze oinetako zenbaki daukazu?** 40a.
- **Sinestuna zara?** Bai.
- **Politika da Arrasate?** Ez.
- **Zer daukazu amantaleko poltsikoetan?** Destorniladore bat, guanteak, bi faktura, Winston pakete bat eta 1.000 pta.

LABURRAK

Goma-Espuma ikastaroa

AEDko IXE-IXA komiki taldeak "Goma-Espuma" ikastaroa antolatu du. Ikastaroa astelehenero arratsaldeko 6etatik 9etara izango da eta azaroaren 6an emango zaio hasiera eta gabonetan amaiera. Eskolak AEDko lokaletan izango dira. Izena emateko 79 39 91 telefonora deitu.

Idazkera lehiaketa

Kalean dira "Idazkeraren Artea VI. Lehiaketa"ko oinarriak. Lehiaketa adin guztietako pertsonentzat dago zabalik eta nahi beste lan aurkez daitezke, lumaz bakarrik egin dakoak noski.

Lanen balorazioa egiterakoan bi sail bereiztuko dira; Pertsonala eta kaligrafikoa. Sariak 3 mailatan banatuko dira: 8 urtetik 12ra bitartekoa lehena; 13 urtetik 17ra bitartera bigarrena eta helduen maila hirugarrena.

Lanak lamina berezi batean bakarrik aurkez daitezke eta lamina hori Tamayo dendan lor daiteke Arrasaten. Lanak azaroaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira.



LURRATS

Oinezko eta
Bizikletazale
Elkartea

Mendi-bizikletaz ibilaldia

ARRASATEtik OSINTXUra trenbide zaharretik

Eguna: **Urriak 22. Igandea**

Irteera lekua: *Portaloia*

Irteera ordua: *Goizeko 10.30etan*

Amaiera ordua: *Eguerdiko 13.30ak*

Ibilbidearen luzaera: *33 km.*

"Trenbide zaharra oinez eta bizikletaz ibiltzeko"


Denborapasak

• ESAERA •

“Berdintasuna bakarrik teorian existitzen da”

NAPOLEON

• JEROGLIFIKOA •



Nafarroako herria.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10		11	
12			13			
14						15
16				17		18
19						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ase denaren egoera. 8. Erdiko kaleko Gastronomi Elkartea. 9. Euskararen Gaitasun Agiria. 10. Egintza. 12. Indonoesiako irla. 14. Indar handiz entzuten dena. 16. Zerealen zurtoin lehor horia. 18. Bere egitekoa ongi betetzen duena. 19. Karamelu.

Bertikalak 1. Lino, euskal idazle bizkaitarra. 2. Gau-ugaztun hegalaria. 3. Norbaiten kontrako berriketa. 4. Titanioa. 5. (Ald.)Mila kilotako pisu-neurria. 6. Sobera. 7. Joaten ari naiz. 11. Eguzkiaren jainko egiptiarra.. 13. Itxura, tankera. 15. Alfabetoko 14. letraren izena. 17. KORFUko bokalak. 18. Txakur.

• HOROSKOPOA •

Aries Lan asko egin beharko duzu baina ez larritu.

Taurus Jantzi horrekin ondo zaudela esan dizu norbaitek, ezta?

Gemini Irudimen handia izan behar da zure ideiak ulertzeko.

Cancer Arazoak konpontzen ez dakit, baina sortzen ona zara.

Leo Peluka egiteko batzen duzu eroritako ilea?

Virgo Barruak nahastuta dituzu. Barrukoak botatzen ere ikasi.

Libra Besteei ez diezu hitz egiten uzten. Kontura zaitetz!

Scorpio Badaezpada iluntzeko zortzietatik aurrera ez kalera irten.

Sagitaris Negar egiten ez dutenek ez dute lortzen. Badakizu zer egin.

Capricorn Inoiz ez da berandu. Hasten bazara lortuko duzu.

Aquarius Amesgaiztoak izaten dituzu gauetan? Zer egingo diogu ba!

Piscis Horrela jarraitzen baduzu komisaldegian bukatuko duzu.

Etxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!



Anna de Codorniu

Maria Agirre 'Astebete' saioko aurpegi berria

• Aurrekoen aldean, zertan desberdinduko da "Astebete" berria?

Aurrekoen hildoari jarraituko dio. Astea kanpoan pasatu dutenei edo eta astean zehar ATBn emandako albisteak gogoratu nahi dituztenei errepasotxo bat eskainiko die informatibo honek. Horrez gain, gonbidatu bat edo bi etorriko dira saio bakoitzera astean zehar jasotako albiste baten inguruan hitzegitera edo gaurkotasaneko gai bati buruz erantzuteko.

• Aurretik bi aurkezle izan dira. Konparaketen beldur?

Egia esan horrek ez dit ardurarik ematen, ez dut uste aurrekoek eman zuten maila eman behar dudarik. Nik nire ikutu pertsonala emango diot eta ahal bezain ondo egiten saiatuko naiz. Nire lehen programa da baina ez dut beldurrik.

• Eguneroko informatiboek eskeintzen ez duten zer eskainiko du "Astebete"n?

Zeozer desberdina eskein-



tzen saiatu behar dut eta hori ez da erraza. Gainera oraingo informatiboetara gonbidatuak datoz eta hori zen Astebetek lehen zeukan desberdintasuna, beraz, saioaren helburua gaiak sakontzea izango da.

• Zer lortu nahi zenuke saio honen bidez?

Ikuslegoarentzat erakargarria izatea lortu nahi

dut, hori da nire helburua.

• Zein izango da zure lehen gonbidatua?

Arrasaten ikasten duen tolosar bat. Udaran Ceutan egon da afrikarrei laguntzen eta azken egunotan gertatutako istiluen arrazoia azaltzera dator. Afrikarren eskubidea babesteko udaletxeetan hasi duten kanpainari buruz ere hitzegingo digu.

• KOMIKIA •



Ratx. Ize-ixa komiki taldea.

• PROGRAMAZIOA •



20 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

Elkarrizketatua: Javi Luengo, udaran Ceutan afrikarrei laguntzen egon den tolosarra. Bertan gertatu diren azken istiluei buruz mintzatuko da.

23 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

24 Asteartea

19.30etan

Marrazki bizidunak

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

25 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Nor Nori Rock

26 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Dokumentala

27 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

• SOLUZIOAK •

Horizontalak: 1. Asetasun, 8. Kasi-zukre, no. 9. EGA, 10. Obra, 12. Sumatra, 14. Ozen, 16. Lazto, 18. On, 19. Ora-
Bortikalak: 1. Akesolo, 2. Saguzar, 3. Esamesa, 4. Ti, 5. Ahot, 6. Sobra, 7. Noa, 11. Ra, 13. Antz, 15. Ene, 17. Ou, 18. Or.
Jeroglifikoak: Biana.

Etxebizitzak

- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia alokatzen da Larrea inguruan.** Tfnoa: 79 69 41. Juli.
- **Neska bat behar da Donostian** pisu bat osatzeko (Okendo kalean). Tfnoa: 42 51 49.
- **Neska bat edo bi behar dira pisua osatzeko** Leioan. Tfnoak: 79 40 13 (Bea) - 79 02 20 (Eva).
- **Erdialdean dagoen garatea alokatzen da,** itxitakoa. Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisu bat alokatzen dut** Udalpe kalean (Erguin). Tfnoa: 79 22 75.
- **Aukera paregabea.** Roneon garageak salgai, prezio onean. 79 21 61.
- **2 garage plaza alokatzen dira Maixorren.** Zerkaostetatik dauka sarrera. Tfnoa: 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Garage bat alokatzen da** Altamiran. Tfnoa: 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Erdialdean 90 m²ko pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua alokagai Maalako Arrabalean.** Jantzi-ta dago. Tfnoa: 77 02 59.
- **Pisua alokagai San Juanen.** Ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Dei egin gaeuz.
- **Gasteizen bi logela alokatzen ditut.** Tfnoa: (945) 27 86 79.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Zuzenbidean lizentziadunak** OHO, BBB eta ingelesezko klase partikularrak emango lituzke. Esperientzia eta talde txikia. Tfnoa: 79 28 80.
- **Emakumea gertu umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko.** Esperientziaduna. Tfnoa: 79 28 80.
- **Frantziar batek frantsesezko klase partikularrak** ematen ditu. Tfnoa: 79 35 95.
- **Jatetxe batean zerbitzaria eta sukalde laguntzaile** esperientziadunak behar dira. Tfnoa: 71 43 45.
- **Etxe, taberna edo edozein lokaletako** garbiketarik egingo nituzke. 79 37 95 (Garbiñe).
- **Haurrak zaindu** edo garbiketarik egingo nituzke. Tfnoa: 77 06 43.
- **Etxeko lanak egin** edo denda batean lan egingo nuke. 77 07 58 Ana Isabel.
- **Magisteritza daukan neska batek** OHoko klaseak ematen ditu, euskaraz edo erdaraz. 77 10 21, Montse.
- **Neska prest umeak zaintzeko** edo dendan lan egiteko. Dei egin 13.00tik 16.00era edo 22.00tik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakfel.
- **Andra geriatrian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Neska euskalduna umeak zaintzeko** edo lokaletarako garbitzeko prest. Tfnoa: 79 30 85. Eguerdietan deitu.
- **Erizain laguntzailea** eta gerontologian esperientziaduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 30 85. Eguerdietan deitu.
- **Aleman klaseak jasoko** nituzke, bakarrik edo taldeka. 10etatik aurrera. Tfnoa: 78 08 98.
- **Magisteritza titulodunak** OHoko klaseak emateko prest. Tfnoa: 79 98 73. Rakel.

Salerosketak

- **Opel Corsa salgai.** (SS-Z). Oso egoera onean eta kilometro gutxirekin. Prezioa: 350.000 pta. Tfnoa: 76 0 7 87.
- **Vespa Iris 200 salgai.** Tfnoa: 76 08 51.
- **Bibolin 1/2 salgai.** Soka markakoa eta egoera onean. Tfnoa: 79 25 85.
- **Gauerako bost akumuladore** elektriko salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 79 87 90.
- **Rondaia talde baterako** soinu-jolea behar da. Tfnoa: 79 71 21.
- **Boxer arrazako txakurkumea salgai.** 77 00 17.
- **Optima SP 20 idazteko makina** elektrikoak salgai. Egoera ona. Tipex-a darama. Tfnoa: 79 11 54
- **2 CV salgai.** 30.000 ptatan. ITV uztailea arte. Dei egin gaeuz 77 13 11 tfnora. Lurdes.

Denetarik

- **Kutxak duela urte batzuk** perretxikoen lami-nak atera zituen. Horiek erostea gustatuko litzaidake. Etxean baduzu eta saltzeko asmoaz bazaudede dei egin 79 80 31 tfnora. Ondo ordainduko dut. Tomas.
- **Gasteizera egunero** goizeko 8etarako joan behar baduzu eta tokia baduzu dei egin. Tfnoa: 79 61 19.
- **Bilbora egunero** goizeko 9etarako joan behar baduzu eta tokia badaukazu dei egin 79 15 33 tfnora.
- **Maritxu Kajoi egunean** txaketa urdin ilun bat desagertu zitzaidan Noski tabernan. Aurkitu baduzu dei egin 79 02 20 tfnora.

Aste Gazte

Lana

• Autoenplegu programa 1995: negozio ideia bat martxan jartzea nahi dutenei, prestakuntza-tutoretza eta dirulaguntza eskaintzen die. Proiektuak aurkezteko epea: azaroak 10.

• Asteburuetakoko egunkarrietan argitaratzen diren lanpostu eskaintzak astero ezagutu nahi duzuenok, astearteetatik aurrera izango dituzue Gazte Bulegoan.

Bidegorriaren alde

• Igande honetan, urriak 22, Arrasate-Osintxu bizikleta mar-

txa antolatu du Lurrats elkarteak, trenbide zaharretik, bidegorria errebindikatzeko. Martxa, Portaloitik abiatuko da, goizeko 10etan.

Bekak

• Giza eskubideei buruzko ikerketak egiteko bekak. Euskal Herriko Komunitate Autonomoan bizi diren lizentziatuei zuzenduta. Epea: urriak 26.

• Ikasketa artistikoak Estatu Batuetan sakontzeko bekak. Landa nahi den espezialitatean dagoen titulua eskatzen da. Arloak:

eskultura, pintura, arte plastikoak, dantza, antzerkia,... Epea: urriak 27.

Gazteok bizikletan

• Urriaren 20tik 30era bitartean ikusgai daude Monterronen aurtengo argazki lehiaketara aurkeztutako lan guztiak.

Lehiaketak

• "Camino de Hierro" argazki lehiaketa. Gaia: trenbideak. Formatoa: 18x24/40x60. Sariak: 1) milioi bat, 2) 300.000 pta, 300.000, 25 urtetik beherakoen atalean eta 50.000 ptako 10 akzesit. Epea: azaroak 17.

"Ozenago egin beharko duzu oihu, eskatu orde exikitu, bide berriak asmatu, zerbait, inori kalterik egin ez dioten gazte hauek (intsumisuek) barrutik entzun ez ditzaten ate metalikoen zarata izugarriak."

BEGO MONTORIO (EGUNKARIA)



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Jose Aranzabal



SUKALDE ALTZARIAK: Bañez Doktoea, 2 (San Andres auzoa). Tfnoa: 79 18 92

ELEKTRAGAILUAK: Iturriotz kalea, 15. Tfnoa: 79 15 16

6 URTEKO
GARANTIAZ





OPEL VECTRA

merit



GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE HAIN GUTXIREN TRUKE.

115 CVko 2.0i alemaniar batek adina, Opel injinerutza Alemaniar ospetsuak indartua. Zuk merezi bezalako ekipamendua: **Direkzio lagundua, pretentsoredun segurutasun uhalak, alboetako segurtasun-barrak, itxitura zentralizatua, leihoak isteko elektricoa, atzekaldeko jarlekuetan ere burua etzatekoa, antena elektrikoa...** ikusteko zein berba egiteko hainbeste emango dizu, ezin zara Opel Banatzailearengana probatzera etorri barik geratu. Izan ere, sekula ez duzu hain gutxiren truke hainbeste jaso.

OPEL VECTRA MERIT. BERE PREZIOA MERITU HUTSA DA.

OPEL

Z U R E Z A I N G A U D E

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFICIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.